

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/6/21 | 386



Garbiñe Biurrun eta Txomin Garmendia



.eus domeinua onartuta



KMK Bideo Lehiaketako lau finalistak aukeratuta



San Joan sua piztuz eskualdean



Ttiklikl, gurasoentzat informazioa sarean



Hiahoka; hizkuntza, ahotsa eta kantua Iruran



Beantatzuz, Tolosa pintatzuz



Joxe Manuel Agirrerekin solasean



**Beti dago
lehen aldi bat
edozertarako...**

Bizikleta gainera lehen abenturarako.
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai:
erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko,
adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online
estreinatzeko unea.
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako
lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik
gorako eskaerarako balio du.

EROSKI online
zurekin

eroski.es

NUTRIZIO AHOLKULARITZA



AMAIA ETXETXIPIA
"BIOLOGIAN" lizentziatua eta "GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN" Diplomaturak

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

OSASUN ZENTROA
KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA
ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

KOLEGIATU ZIK. 587

R.F.S. 89/12

**Zugandik gertu gaituzu
Zu ere gertu behar zaitugu**

TOKIKOMak komunikabideak gertu gertukoak gaituz. Zure inguruan gertatzen dena KUTXA GIZARTE EKINTZA, Zure Hizkuntza, Zure Herria.

Lan alorrean eta etxetik, zure inguruan gertatzen dena ere gertatu behar zaitugu. Maitatzen duzun erakunde laguntzaileekin elkarlanean, berriz, haizezko eta perkusiozko instrumentuak egin eta konpontzen ditu.

Gertu gertuko? Gertu gertuko gertu.tokikom.com herriaren eta hiriaren inguruan!

TOKIKOM
TOKIKO KOMUNIKABIDEEN BATERAGUNEA

Hirinet.net	Alcor	Barren	28 kanala	Txintxarri.info	Xorroxin Irratia
Berton	Alcor.com	Elgoibarren.net	Karkara	Alurri	Guallee
Bibo Hiri Irratia	Anboto	Baleike	Karkara.com	Alurri.com	Guallee.net
Presti	Anboto.org	Erio telebista	Antxeta Irratia	Ttiki-ttapa	Beleike Irratia
Uk	Goiena Papera	Uztarria	Hernaniko Kronika	Ttiki.net	Euskal Herria Irratia
Ukberri.net	Goiena.net	Uztarria.com	Kronika.net	Xaloe telebista	
	Goiena telebista	Goierra telebista	Noaua	Mailope	
	Pil-pilean	Galtzaundi	Noaua.com		
	Plaentzia.com	Galtzaundi.com	Txintxarri		



galtzaundi
euskara taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Alestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Eneritz Iraola, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Garikoitz Nazabal eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Bidera Publizitatea
661 678 818 • aetxaniz@bidera.eu

Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi

Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Ura Iturralde Larrañaga
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: 55-906/91
Franko Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Aikiza, Alto, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belantza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundi ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikaren Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



TOLOSAKO UDALA

kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argital-pena.

non_{er}



**Erreportaia:
Beantatuz, Tolosa pintatuz**

Beantatuz. Beantatuz. Beantatuz... izena errepikatu eta jatorria ezagutzeko grina ere piztu zaigu. Melodiak euskara joera du, baina ba ote? Mamia, ezagutu, ezagutzen dugu; formatu handiko mural erakustaldia da Beantatuz-en baitan biltzen dena. Ekainaren 13tik 18ra Tolosak bertako zein atzerriko gonbidatuak izan ditu herriko paretak artelan bihurtzeko. Graffiti & Mural erakustaldia hobeto ezagutzeko antolatzaileekin bildu gara.

8-11. orrialdeak

Musikaren munduan murgilduta bizi da Joxe Manuel Agirre. Dultzaina edo txistua eskuan, herriz herri ibiltzen da. Tolosako Ibaiondo 11n duen tailerrean, berriz, haizezko eta perkusiozko instrumentuak egin eta konpontzen ditu.

Elkarriketa: Joxe Manuel Agirre 14-16. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Garbiñe Biurrun Mancisidor eta Txomin Garmendia	4-5
	.eus domeinua onartuta	6
	KMK Bideo Lehiaketako lau finalistak aukeratuta	7
	San Joan sua piztuz eskualdean	12-13
	Zintzilik: Ttiklik!, gurasoentzat informazioa sarean	17
	Hiahoka; hizkuntza, ahotsa eta kantua Iruran	18-19

Matxismoa, indarkeria eta egunerokotasuna



Garbiñe Biurrun Mancisidor
Epailea

1990etik hona genero indarkeriari buruz ikerketak, ikastaroak, topaketak, tesiak... egin dira. Lan hauetan guztietan emakumezkoen aurkako indarkeria aztertu eta errealitate ukaezintzat jotzen da. Alderantziz ez da gertatzen edo, horrela izanik ere, oso-oso kasu gutxi ezagutzen da. Beraz, hasi gaitezen terminologia egokitzen: hemen ez dago genero indarkeriarik, indarkeria matxista baizik.

Hau ez da kontu berria, noski. Berria dena zera da: errealitate honen existentziak emakumezkoek jabetu garena eta gizarteari eta aginte publikoei eskatu diegula tolerantzia zero jarrera horiekiko. Orain urte gutxi arte indarkeria matxistaren hainbat azalpen ulertzen eta asunto pribatutzat jotzen bazen, gaur jarrera bortitz horiek legalki zigorgarriak izateaz gain, sozialki ere gaitzesten dira.

Ikuspegi berri hau posible egin duen aldagaietako bat zera izan da: familiarteko harreman ereduak aldatuz doala eta emakumezkoen rola, bai pribatua, bai soziala ere, zorionez eta emakume askoren lanari esker, beste bat dela.

Nazio Batuen esanetan genero indarkeria historia osoan gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko harreman desberdinen azalpena da, harreman horiek mantendu dutelarik gizonetzkoen nagusitasuna bizitza pribatuaren eta publikoaren arlo guztietan.

Orain arte gizartearen gaitzespena eta erantzun legala indarkeria matxistaren adierazpenei zuzendu zaizkie. Baina genero indarkeria eta matxismoa ez dira beti horren erraz ezagutzen eta, gaur, oraindik, badaude sistema sozial matxistaren indarkeria, dominazio eta nagusitasuna adierazten dituzten beste era batzuk, sozialki eta legalki inolako erantzunik edo oso erantzun ahula jasotzen dutenak.

Gizarte justua lortzeko herriar guztion artean jorratu behar dugu bidea: gizonak eta emakumeak, pertsona libreak, aukera berdinez baliaturik arlo guztietan, pribatu zein publikoan.

Bertan ditugu San Joan jaiak: aukera ezin hobea tolosar guztion berdintasunez parte-hartzeko eta elkarren arteko komunikazioa indartzeko. Jaiak aisiarako denbora dira, erri-toak errepikatze eta kaleaz gozatzeko. Baina jaiak badute, baita ere, beste zentzu bat: jaietan islatzen da munduaz daukagun ideia, gure baloreak eta gure nahiak.

Tradizioak, besteak beste, historian zehar aisia nola kudeatu den adierazten digu. Tradizioa, beraz, gizonetzkoen dominazioaren isla da eta, derriogorrez, gaurko baloreei egokitu behar zaie. Tradizioa biziko da baldin eta gureganatzen badugu eta pertsona guztion askatasuna bermatzen badu. Bestela, tradizioa gizarte justurako oztupoa besterik ez da izango eta aginte publiko guztiei dagokie berdintasunerako eta askatasunerako dauden oztupo guztiak kentzea.

Ez da zaila tradizioa eguneratzea. Gainera, aldaketa hori partekatzen bada ere, tradizioak ez ditu bere funtsa eta mamia galduko. Tradizioa aldaketa sozialerako zorioneko tresna bihurtu dezakegu denon artean, jaiak disfrutatuz berdintasunez.

Egongo al da inoiz tradizio hoberik?.

Aurtengo Udaberria (2013)

1.- Martxoaren ogeiaz oroitzen bagera, udaberriak legez zuan asera. Baiñan izenari jabe etzan izaera, neguaren gendun bere jokaera, andikan aurrera, eurtik aukera, askoren kaltera, nunnaitik galera; aurtengo antan neguz aspertu gera.

2.- Erriberan euria elurra menditan, aize otz indartsuak berriz alditan. Galerik aundienak ziran basarritan, etxetik ezin erten ziralda erditan, lur-jautsik nunnaitan, beren bide oitan, ezin pasa loitan, beran eta goitan; etxea jotzeraiño zenbait tokitan.

3.- Okerrena pentsatuz lurrak mugituak, basarriak badira uts geldituak. Zenbait gertakizunet gaude txundituak, Abaltzisketan lartzan ziran larrituak, mendi korrituak, txit ugarituak, kezka aundituak, iges abituak; auzotarren laguntzaz egokituak.

4.- Basarritarra ez da ondasun geiegiz, uste gabe okerrak datozte berriz. Zer kontatua badu aurtengo udaberri, ez da aztuko elur, aize eta euriz, laguntzarik balitz, gure agintariz, izketak badabiltz, gerta bitez egiz; iñoiz bada oraintxe ditugu premiz.

5.- Artzaiak'e badute kezka ta larria, mendirako garaia nunbait etorria. Baiña larre kontua oraindik urria, negu luzeak dauka orrela jarria, nunnaitik arria, daukaten berria, degu igarria, mendi-egarria; an bai dute pakea eta erria.

6.- Maiatzaren aurrena mendirako garai, baiña aurtengo antan askorentzat jai. Lengo lege zarrari naita ezin jarrai, mendian bear zutenak kantari ta alai, ardiak ere bai, da bildotsak nunnai, ez dabiltz nolana, mendira joan nai; udaberrian negua artzainen etsai.

7.- Udaberri ezkeror ilee moztailleak, udaberri begira or artaldeak. Garai baten dirua bazuen illeak, orain illeak dabiltz etekin gabeak, oraingo moldeak, aldatu legeak, au dio jabeak: dabiltzan oeak, al ditugu lengoak baiño obeak?

8.- Nola artzaintzak eta bai nekazaritzak, giroan arabera beren emaitzak. Usterik gutxienean datozte ekaitzak, berdi zomorro txarrak da kutsakor gaitzak, neurriko eurtzak, da eguzki printzak, goizetako intzak, Jaunari otoitzak; orduan du etekin egun bakoitzak.

9.- Baserritar da artzai jende berezia, lanaren etekiña txit merezia. Askoren gogoko ez daukaten bizia, iges egin naiean jende asia, gauza itsusia, sarri ikusia, saldu-erosia, tratoko grazia; bitartekoak dute irabazia.



Txomin Garmendia
Bertsolaria

10.- Baserritar da artzai nola nazen jardun, arrantzalea dute bi auek lagun. Oien egiñez nola bizi bear degun, ez ditezela beintzat gelditu alargun, daudenak goi kargun, argitu ditzagun, eskua luza nun, esan diezaiegun; jan-erana etxean izan dezagun.

eus

.eus domeinua onartuta

Sei urteko lanak bere fruituak jaso berri ditu. 2014ko apiriletik aurrera .eus domeinua "euskararen herriaren nazioarteko aitortza" Interneten errealitate bihurtuko da. Izan ere, urtebeteko ebaluazio fasea gaindituta, ICANN erakundeak Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatearen .eus domeinua onartu du.



.eus domeinua eskuratzearen helburuen artean PuntuEus fundazioaren esanetan ondorengoak daude: "euskara eta euskal kultura Interneten ikusgarri bilakatzeko; euskararen eta euskal kulturaren Interneteko presentziari, izanari, izena jartzea".

ICANNek .eus domeinuaren eskaerarekin batera, azterketa-

rako beste 1929 eskaera ezberdin jaso zituen. .eus domeinua "komunitateak" alorraren baitan aurkeztu zen, beste 83 eskaera ezberdinekin batera.

Azken fruitu hau eskuratzearen bidea luzea izan da. 2008ko apirilaren 2an urrats garrantzitsu bat eman zen, PuntuEus elkarteak sortzea, alegia. Egun

guztira 60 elkarte txiki eta handi biltzen dira PuntuEus elkarte horren baitan. Sortzaileak 11 elkarte (Euskaltzaindia, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Ikastolen Elkarte, Euskal Irrati Telebista, Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargoa, Euskadiko Informatikako Ingeniarien Elkargo Ofiziala eta Internetikak) izan baziren ere, gerora beste elkarte txiki eta handi ugari batzen joan dira.

PunEus elkarteak sortu ondoren, PunEus Fundazioa sortzearen lana etorri zen, 2012ko martxoaren 6an. Hau da, domeinua administratu, kudeatu eta kontrolatu egingo duena sortzea.

Ondoren domeinuaren eskaria etorri zen 2012ko maiatzaren 28an. Eta egun, pauso horiek guztiek fruituak eman dituzte: ICANNek .eus domeinua onartu berri baitu.

Hurrengo pausoa ordea 2014ko apirilean iritsiko da, webguneak .eus domeinuarekin erregistratzeko aukera gauzatzen denean. Datozen bospasei hilabeteak erabakigarriak izango dira .eus domeinuarentzat Fundazioak aitortu bezala: "domeinua martxan jartzeko falta diren urratsak emateko". Ondoren, euskaltzale guztion lana etorriko da: "behin martxan jarrita, domeinua erabiltzea, ikustea eta indartzea da .eus domeinuari zentzua emateko modua. Hain zuzen, horixe da, nazioarteko aitortzatik aitortzatik harago, euskararen herria munduaren aurrean ikusgarri bilakatzeko modua".

.eus domeinua onartua izanaren albistea ospatzeko festa ospatuko da ekainaren 21ean, EHUKo Parainfoan, Bilboko Abandoibarran, 13.00etan hasita.



AHORA!

KMK13TOLOSA

KMK Bideo Lehiaketako lau finalistak aukeratuta

Laskorain Ikastolako Ikasle Batzordeak KMK13ren baitan antolatutako Ahora Bideo Lehiaketak baditu dagoeneko lau finalista. Lehen bi sailkatuak publikoaren bozketaren bitartez eskuratu dira eta gainontzeko biak Ikasle Batzordearen oniritzi pasara dira azken fase honetara.

Irabazlea aukeratzearen amaierako lana ordea epaimahai bati dagokio. Epaimahaiak ondorengo kideek osatuko dute: Kike Amonariz, soziolinguista eta telebista aurkezlea; Ibai Iriarte, Tolosako alkatea; Aiora Zulaika, "Pirritx" pailazoa eta Jone Urteaga, Laskorain Ikastolako zuzendaria. Epaimahaiaren erabakia ekainaren 20an, arratsaldeko 20.00etan, Tolosako Kultur Etxean jakitera emango da.



15. BIDEOA.

Publikoak aukeratuta

Ahora kanta hartuta bideoklipa osatu dute 15. Bideoko parte-hartzaileek.



17. BIDEOA.

Publikoak aukeratuta

Euskararen elektrokardiograma. "Ez ezazu galdu euskara bihotzetik ahorako bidean".



10. BIDEOA.

Ikasle Batzordeak aukeratuta


Joxe produkzioak ekoiztetxeak "Barru-barrutik!" aurkezten du.



14. BIDEOA.

Ikasle Batzordeak aukeratuta

KMKtan lan egiteko kasting-a.



Arretxe
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa

jare
PSIKOLOGIA ZENTRUA

AMAIA PEREZ
zbk. GZ-1919

Senpere kalea, 7
20200 Beasain
Tel. 675 634 329

Errotulazioa & india
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskorain kalea 25, 1-04 atea
20271 Iruia (Gipuzkoa)

Beantatuz, Tolosa pintatuz

Beantatuz. Beantatuz. Beantatuz... izena errepikatu eta jatorria ezagutzeko grina ere piztu zaigu. Melodiak euskara joera du, baina ba ote? Mamia, ezagutu, ezagutzen dugu; formatu handiko mural erakustaldia da Beantatuz-en baitan biltzen dena. Ekainaren 13tik 18ra Tolosak bertako zein atzerriko gonbidatuak izan ditu herriko paretak artelan bihurtzeko. Graffiti & Mural erakustaldia hobeto ezagutzeko antolatzaileekin bildu gara.

Naiara Roldan de Aranguiz
Argazkiak: NRA eta Ura Iturralde Larrañaga



Ruina | KidChalao | Chylo

Izenaren jatorria argitu beharreko lehen gauza da. Tolosako sinboloa da izenaren lehen parte, *bean*, babarrunaren ingeleseko forma, Tolosa

bera adierazi nahiarekin. Eta bigarren parte, *-tatuz*, alegia, pintatuz aditzari egin nahi dio erreferentzia. Azken batean, Beantatuz esateko orduan, To-

losa pintatuz ere adierazi nahi da.

Beantatuz jaialdiko antolatzaileek izenaren sorburuari buruzko azalpena luzatu nahi izan dute: "gure lanagatik normalean izenetan ingelesera jo izaten dugu, oraingoan zerbait euskalduna bilatzen genuen; gure lanari izen euskalduna emateak zuen garrantziak jabetu ginen, baina aldi berean kanpora begira erakargarria izatea nahi genuen. Tolosa pintatuz joko sortu genuen. Izen joko hori berrira erakargarria da. Euskara dela badakizu baina ez zer esan nahi duen..."

Honakoa izenaren istorioari dagokionez eman beharreko azalpena. Baina erakustaldiak berak badu bere historia. Tolosak bere lehen graffiti erakustaldia 1994. urtean izan zuen, Tolosako gazte boskote baten ekimena izan zen, euren lagun graffite-roak gonbidatu eta Triangulo plazan margotzen aritzen ziren. Honela, erakustaldiak 2009 arteko ibilbidea burutu zuen. Aipatu urtea urte zaila izan zen artistak bertararazteko. Orduan, GKO-k 2010. urtean antolakuntzaren erreleboa hartu zuenean, Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa oinarri hartuta, Tolosan graffiti lehiaketa antolatu zen lehenengoz. 24 artista gerturatu ziren herrira sari bila, antolatzaileen esanetan "arrakastatsua izan zen, graffiti ugari eta kalitate onekoak egin ziren". Epaimahai batek sarituak erabaki zituen, ohiko lehiaketetan gertatu bezala. Epaiak gustatu ez, eta antolatzaileek aurrera begirako erabakia hartu zuten: aurrerantzean lehiaketa gehiagorik ez antolatzea, alegia. Lehiaketa erakustaldia bihurtuko zuten aurrerantzean.

2011 gonbidapen zuzenak egiten hasteko urtea izan zen. "Erakustaldia zerbait txikiagoa eta hobeto antolatua izan behar zela erabaki genuen. Gustuko artistak zuzenean gonbidatuz". Artista asko eta asko graffiti txikietatik tamaina handiko muraletara pasa zirela konturatzekoan, Beantatuz Graffiti & Mural Erakustaldia bilakatu zen.



Above

Pareta, ezinbesteko elementua

Muralak sortzeko ezinbesteko elementu bat paretak dira. Eta paretak eskuratzea, baimenak adostea, artisten beharretara egokitzea Beantatuz-en antolakuntzaren maitasun-gorrito istorioetako bat da: "joko asko eta lan asko dauka gustuko paretak lortzeko eta horien baimena eskuratzea".

Paretak lotura zuzena dauka artistarekin. Gonbidatu bakoitzak pareta ezaugarri ezberdinak eskatzen ditu, geroz eta garrantzi gehiago ematen dio artistak margotzen duen paretari.

Baimenak lortzeko orduan Tolosako Udalaren bitartekari-tzaren bitartez burutu ohi dute. Hala ere, tramitazioak arrakasta eskuratzeko aukera gutxi dituztenean, antolatzaileak zuzenean jabeekin harremanetan jartzen dira euren proposamena aurkeztu eta baiezkoko eskuratzeko helburuarekin.

Antolatzaileen ametsaketa bat, margotuak izateko baimena

duen paretakin artxiboa osatzea litzateke. Honela, eskura dituzten paretak balizko artista gonbidatuei erakutsi eta euren parte hartzea erraztea litzateke kontua.

Herritarrek pareta hutsen bat jabegoan izan eta artelan bihurtzeko gogoia izanez gero, Beantatuz-eko antolatzaileekin harremanetan jartzea besterik ez dago. Tolosabeantatuz.blogspot.com webgunean bide zuzena ireki bitartean, Tolosako Udaleko gazteriako teknikari Nerea Cereceda izan daiteke bitartekaria. Antolatzaileek herritarrek animatu besterik ez dituzte egiten. Hala ere, kontuan hartu beharreko gomendioa ere luzatzen diete: "konfiantza izan behar dute artistarengan, lana ona izango dela bermatzen diegu. Askatasuna eskaini behar dute. Ekartzen diren artistak euren kalitateagatik ekartzen dira. Gure begia beste lan batzuetara egiten ikasi behar dugu".

Baina zerk egiten du pareta

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunerok.

Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoak erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA



J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Pau Quintanajornet

bat ona? Zer nolako ezaugarriak izan behar ditu pareta batek mural bihurtzeko? Antolatzaileek erantzuna luzatzen dute: "ta-mainak, materialak eta hezeta-sunik ez izateak. Altuera handia badu, fatxada edo kontra-fatxada bada, askoz hobe".

Paretaren egoera baldintza onetan badago, artelanak 10 urtez iraun dezake; paretaren egoera kaxkarrak lanaren iraupena bi urtera mugatu dezake. Hala ere, kale artista hauek argi dute euren lanaren iragankortasuna erabatekoa dela. Adibide bat, egun Berazubi Estadioko lanak direla eta, hainbat pareta behera joan dira, artelan eta guzti: "jokoaren partea da, kalean margotzen duguna badakigu betiko ez dela; badakigu sortzen duguna amaiera bat duela. Eta onartzen dugu. Horrek ez du esan nahi lan eskasagoa egingo dugunik. Argazki bidez gure lanaren artxiboa osatzen dugu. Behin argazkia dugula, ez zaigu gehiegi inpor-

ta. Margotu eta urte batzuetara gustatzen zaigu pareta bisitatzeta eta paretari zer gertatu zaion ikustea. Baita pareta ote dagoen jakitea ere".

Artistak

GKo-ko partaideei, antolatzaile bezala erakustaldi honek artistekin esperientziak partekatzeak aukera eskaintzen die: "mundu mailan bueltaka dagoen jendea Tolosara gerturatu eta beraiekin bizipenak elkarbanatzeko aukera da Beantatuz". Izan ere, askotan artistak erlazio pertsonal bat medio gerturatzen dira Tolosara. Beste batzuetan ordea, urtetan miretsi izandako artistak dira; gonbidatuak aldizkari, *blog* edo webgune bidez ezagututakoak. Euren arte-lana gertatutik ezagutzeko aukera izateaz gain, antolatzaileek honako artistekin 4-7 egunez elkarrekin bizitzeko aukera ere ematen die: "bakoitzaren artista bizi-

tza ezagutzeko aukera ematen digu".

Miretsitako artista horiek Tolosara gerturatzerako orduan askotan kontaktu sare bat izateak laguntzen du. Baina beste askotan aurretik egindako lana ere laguntzaile bihurtzen da: "urtez urte Europa eta mundu mailan ezagunak diren artistak ekartzen baditugu, hurrengo urtetarako aurkezpen gutun moduan erabiltzeko baliagarriak dira. Konfiantza ematen du, atzetik lana egin dela baieztatzen du".

Erreferentzialtasuna

Beantatuz Graffiti & Mural Erakustaldiaren xedea "ekitaldi txiki" moduan mantentzea da. Gonbidatu gutxi, kalitatea mantendu eta parte-hartzaileen artean harremanak garatzeko aukera izatea: "beste bide bat izan dadila". Izan ere, mundu mailako tankerako jaialdiak aztertuz gero, tamainan handigoak direnak parte hartzaileen arteko

harremanak ez dituzte lantzen: "artista bakoitzak pareta bere kabuz margotu eta hori amaitzerakoan alde egiten du. Guk gonbidatuei jaialdiaren parte sentitzea eskaintzen diegu".

Mundu mailan, hala ere, gaur egun tankerako horrenbeste jaialdi egotearekin erreferentzialtasuna izatea zaila da: Londres, Bristol, Alemania... Hala ere, elkarriketatuak Italiako Fame Festival delakoa ezin izan dute aipatu gabe utzi. Herri txiki bat izan, baina mundu mailako artistarik garrantzitsuenak pasa dira bertatik. Zergatia? Harrera, izaera, herriaren nortasuna. Erantzunak ugariak izan daitezke.

Beantatuz-eko antolatzaileek ordea, esentziari begiratu nahi izaten diote. Eta euren ustetan gaur egun benetako esentzia Afrikan eta Asian baino ezin da topatu: "Afrikan lehenbiziko jaialdiak ospatzen ari dira; bertan benetako esentzia dago, egiazkotasuna, baliabiderik gabe egiten diren horiek. Pintura zerbait natural bezala ikusten dute bertan, ez da komertziala. Bertako herri-tarrek artisten parte-hartzea opari gisara ikusten dute. Artistak bere materiala gastatzea, bere denbora jartzea, mural bat margotzea... opari gisara ikusten dute".

Tolosak ere Beantatuz-ek eskaintutako mural eta graffitiak oparizat ikusten al ditu? Beantatuz-ek esentzia mantenduta jarrai dezala bada 2014. urteko edizioan eta aurrerantzean ere Tolosako paretak arte-lan opari bihurtzen. ☺

Beantatuz 2013

Ekainak 13-18. Graffiti & Mural Erakustaldia.

Above | Pau Quintanajornet | Txori-A | Ruina | KidChalao | Chylo | Inwoko

Atzerriko zein gertuko artisten uztarketa izan da Beantatuz 2013. Gertuko artisten artean Txori-A eta Inwoko. Eta kanpoko artistak ordea ondorengoak izan dira 2013. edizioan: Above, Pau Quintanajornet eta Ruina, KidChalao eta Chylok osatutako hirukotea. Above edizioko izen nagusia izan da.

Emakumezko eta gizonezkoen artean antolatzaileek parekidetasuna bilatu izan nahi dute: "mundu hau oso maskulinoa denez, bertako emakume artistei emakume graffiti egileak eta muralistak badirela erakutsi nahi diegu. Emakume hauen bilaketan aritzen gara eta kalitate eta nibela badagoela ikusten dugu. Bilaketa honek ezagutzeko bidea ere zabaltzen digu".

Above (1981, California)

San Joan kalean

Aurtengo izarra bera izan da. Antolatzaileek euren has-tapenetik, aldizkariaren bitartez jarraitu izan duten artista da Above. Egun, Above kale artistaren lana kritika sozial eta politikora bideratuta dago, askotan formatu handiko esaldiak idatzita, ikuslearengan hausnarketa eraginez. Beantatuz-ek hiru arrazoi izan ditu kontuan Above gonbidatzeko orduan:

lana gustukoa izatea, mundu mailan erreferentzia izanik; berarekin Zaragozako jaialdian harremana egin izatea eta aurrrera begira Beantatuz-i bere partaidetzak eskainiko dion garrantzia azpimarratzea.

Pau Quintanajornet (1982, Txile)

Tolosako Bonberoetan

Txilen jaio bada ere, egun Alemaniako Cologne-n bizi da. Latinoamerikako nesken graffiti kolektibo baten baitan kokatzen du bere burua. Berak, hala ere, Alemanian gartzen du bere lana. "Estudioko lana paretan islatzen badakie-la", azpimarratu dute Beantatuz-etik. Nesken irudiak testurekin nahastuta lantzen ditu Pau Quintanajornetek, kolore biziko eta detaile ugariz beteriko lanak sortuz.



Txori-A. (1978, Donostia).

San Esteban auzoan

"Etxekoa delako. Antolakuntzan influentzia duelako" parte hartzen duela dio ironiaz Txori-A-k. Formatu handiko pareta margotzea eskura izan eta KMK13ri egin nahi izan dio erreferentzia

Txori-A-k. Bere lana abstrakzioan oinarritzen da, ikusleak jasotako estimuluaren definizio pertsonalari bidea irekiz. Estetika, mugimendu eta zehaztugabearen arteko elkarriketa.

Ruina | KidChalao | Chylo. (Madril).

Berazubi kalean

Talde bezala izenik ez badute ere Tolosan batera aritu dira. Esperimentazioa eskaintzen dute, figuratiboa, abstraktua eta grafiak nahastuz. Mural konbinatuak lantzen dituzte, norbanakoaren lana osotasunean oso ondo orekatuz.

Inwoko. (1977, Donostia).

Triangulo plazan. Ume eta gazteei zuzendutako tailerra Diseinatzaile grafikoa, ilustratzailea, artista, malabarista da Inwoko ezizenez ezaguna den Patricia Gomez. Artitadeto eta Bitamine Faktoria kolektiboetako partaide da. Ume eta gazteei zuzendutako tailerra gidatu zuen Triangulo plazan, "haurrentzako esperimentazio gunea, parte hartzeko gunea".



Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izaguirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
Iurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amoroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGURAS
BILBAO
Aholkularitza
integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena

Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobiila: 608 774 822

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



San Joan sua piztuz eskualdean

Udaren hasiera iragartzen duen sua piztuko da ekainaren 23ko gauerdian eskualdeko hainbat eta hainbat herrietan. Jatorri paganoa duen festa honek udarako solstizioaren berri ematen digu eta baita festa giroan murgiltzeko bidea eskaini ere Abaltzisketan, Altzon, Alkizan, Anoetan, Belauntzan, Berastegin eta Ibarren, besteak beste.

Festa hauetako erritu nagusia sua piztea izango da. Garai batean erritu honek eguzkiari indarra ematea bilatzen zuen urteko gauarik motzenez. Izan ere, egun horretatik aurrera eta neguko solstizioa bitartean, eguzki-orduak egunetik egunera murrizten joango baitira.

Suak, hala ere, bestelako indar sinbolikoa ere irudikatzen du; botere purifikatzailea, eta garbitzailea. Suaren inguruan dagoenarekiko, suari begiratzen dionarekiko botere garbitzailea du, hain zuzen ere.

Izenari dagokionez, festa San Joan izena hartu zuen Erdi Aroaz geroztik, San Joan Ba-

tailatzailearen kristau santuari erreferentzia eginez. Euskal Herrian, Euskaltzaindiak Donibane Sua edo Donibane Festa hobesten badu ere, izenik zabalduena San Joan sua edo festa da, eta baita Tolosaldean erabiltzen dena ere.

Azken batean, ekainaren 23aren inguruan biltzen diren ospakizun guztiek festaz gozatzeko, udaren etorreraz gozatzeko, zaharrek apurtzeko eta garai berria indarrez hasteko aukera ezin hobe eskaintzen dute. Hona hemen hainbat proposamen:

Abaltzisketa

Ekainak 21, ostirala. 21.00etan hasita barrikotea herriko plazan (afaria norberak eramanda) eta ondoren Erromeria Kupela taldearekin

Ekainak 22, larunbata. 10.00etan ume jolasak (ohe elastikoak, apar festa...).



Argazkia: E.B.

15.30ean XI. Mus Txapelketa eta 21.00etan sagardo dastaketa herriko plazan (afaria norberak eramanda): Larrarte, Isastegi, Rufino, Etxeberria, Zalbide, Begiristain, Sarasola, Aburuza, Zabala, Urbitarte, Itsasburu. Ondoren Erromeria Unsain anaiekin

San Joan bezpera. Ekainak 23, igandea. 10.30ean futbol partidua. 18.00tan zaldi lasterketa Ametzketatik Abaltzisketara eta ondoren herritarren arteko jokoak. 21.00tan San Juan dantza eta Soka Dantza herriko gaztetxoek dantzaturik. Jarraian dantzaldia Gugaz taldearekin

Anoeta

San Joan bezpera. Ekainak 23, igandea. 18.00etan hasita, buruhandi eta erraldioen kalejira herriko txistulariekin, herri afaria plazan, txalapartarien San Joan bezperako sua-



ren jaiaren iragarpena, suaren inguruan San Joan zortziko kantuak eta erromeria, Markox Landa, aita-semeak aho-soinuarekin

San Joan eguna. Ekainak 24, astelehena. Jubilatuen eguna. 12.00etan hasita meza jubilatuei eskainia, herriko dantzariak herriko jubilatuei agurra dantzatzeko diete, herriko jubilatuei eta pentsiodunen bazkaria, Amaia Agirre eta Txomin Azpiroz bertsolariak eta dantzaldia

Alkiza

San Joan bezpera. Ekainak 23, igandea. Herriko plazan afaria. Ondoren sua piztea

Altzo

San Joan bezpera. Ekainak 23, igandea. 21.20etan hasita, sua piztea, sua bedeinkatzea, zahagi-ardoa eta dantza sua-

ren inguruan

Belauntza

Ekainak 21, ostirala. Mus txapelketa Martintxo elkartean (hasi eta bukatu). 22.30

Ekainak 22, larunbata. 18.30ean hasita Igeldoko Lezkarri-Ganbera abesbatzaren kontzertua San Juan elizan, ondoren Urdaiazpiko mozketak eta dastaketa Iñaki Barriolaren eskutik, Bereziartuaren sagardoa txiritik egongo da. Eta 21.00etan herri afaria Gorka eta Leirek alaitutako erromeriarekin

San Joan bezpera. Ekainak 23, igandea. 11.00tan hasita meza, umeentzako eltxetxo hausketak, umeentzako bazkaria gurasoen laguntzarekin eta umeen jolasak: puzgarriak, aparra, etab. 17.30ean ume eta gaztetxoek pilota partidua hasiko dira. 19.30ean ordea

etxean egindako tortilla eta pintxo lehiaketa ospatuko da eta tartean dantza latino animatzeko. 21.00etan sua piztuko da, kanpai jotzearekin eta etxafuegoekin batera. Segidan Pintxo, tortilla eta norberak ekartzen dituen mokadutxoekin afari merienda eliza ondo mahaietan. Udalak, Bereziartuaren sagardoa txiritik jarriko du guztiontzat

San Joan eguna. Ekainak 24, astelehena. 09.00etan txistu-

Ondoren toka txapelketa. Zeraingo Oiharten sagardoa txiritik egongo da. Egunean zehar umeen jolasak egongo dira eta 20.30ean kostila jana herrikoentzat plaza inguruan, Pagadiren soinuarekin alaituta, festei bukaera emateko

Berastegi

San Joan bezpera. Ekainak 23, igandea. 15.30ean eskola-ko umeen hainbat ekitaldi eta erakusketa izango dira: pilota, dantza, judo. Eta 21.00etan



lariak herrian zehar ariko dira, etxafuegoak eta kanpai jotzearekin batera. 11.00tan meza nagusia. Ondoren hamaiketako Zeberio eta Mañukorta bertsolariarekin. 12.00etan marrazki lehiaketa. Eta 17.30ean etorkizuneko eta profesional ohien arteko pilota partidua.

Ibarra

San Joan bezpera. Ekainak 23, igandea. Hauspoa Elkar-teak antolatuta.

Joxe Manuel Agirre Musikariek kalitatea eskatzen dutelako segitzen dut lanean"

Musikaren munduan murgilduta bizi da Joxe Manuel Agirre. Dultzaina edo txistua eskuan, herriz herri ibiltzen da. Tolosako Ibaiondo 11n duen tailerrean, berriz, haizezko eta perkusiozko instrumentuak egin eta konpontzen ditu. Azkar eta merke egiten duen industriarekin iritsi zen krisia bere ofiziora baina Agirreren hitzetan, "musikariek kalitatea eskatu eta nik eskaini diezaiekedan artean lanean segituko dut". Kalakan folk taldea eta Madonna lagun, munduari buelta eman dio berak egindako atabalak.

Igor Mujika

Afizioa ofizio bilakatu duzu

Gaske nintzelarik enpresa batean egiten nuen lan baina greba batean parte hartu ostean kalera bota ninduten. Zerbait egin beharra zegoela-eta, euskal musika tresnak egiten eta konpontzen hasi nintzen. Danbolina nola desmuntatu, petatxoak nola jarri,... musika eskolan irakasle izan nuen Miguel Martinez de Lezeak erakutsi zidan.

Auzolana ere lagun izan zen

Nire tailerretik gertu, errementaria, arotza, fundizioa,...

zeuden. Denok adin beretsukoak ginen eta auzolanean ibiltzen ginen. Bakoitzak ahal zuen horretan eskua luzatzen zidan: moldeak egiten,... Eta niri ere tokatzen zitzaidan beraiei laguntzea: kamioia hustu behar zela,... Auzolanak asko lagundu zidan aurrera egiten.

Egurrarekin, larruarekin,... egiten duzu lan. Materia horiekiko ezagutza ere izan beharko da

Kainaberekin egiten ditut dultzainak. Faktore ezberdengatik -elurra egin duelako, sustraiak ureztatuta ditzutela-ko,...- kainaberen ezaugarriak

aldatu egiten dira. Edozein larruk, egurrek,... ere ez du balio. Animalia beraren atze aldeko edo aurre aldeko larrua, egurra bihotzekoa, azalekoa, goikoa ala behekoa izan,... soinu ezberdina lortzen da. Bizirik dauden materialak dira eta urteen poderioz ikasten da beraiekin lan egiten. Pertsona helduen ezagutzatik ere asko ikasi dut.


Hor dago artisauaren balioa

Balioa baino esperientzia esango nuke. Azken finean, ni beti ikasten ari naiz. Horretarako ere prest egon behar da.

Ikasitakoa nori erakutsi pentsatu al duzu?

Tamalgarrria da Euskal Herrian folklore eskola bat ez egotea. Diziiplina guztiak jasoko lituzkeen eta, besteak beste, instrumentuak egiten irakatsiko lukeen lanerako zentroa faltan botatzen dut. European badira halakoak.

Gizarte honi ez zaio emaitza ekonomikorik ematen ez duen ezer interesatzen eta ezagutza asko galdu egin da. Egun, inor ez dabil larru-ontzaille, sokagintza,... lanetan. Euskal Herriko azkeneko sokagilea, Jose Manuel Zufiaurre, ezagutu nuen. Lizarran 200 urteko historia zuen tailer zoragarrian egiten zuen lan. Zufiaurrek azaldu zidan, Juan Cruz Alli Nafarroako lehendakari zela bere tailerrera joan zen. Hau mantendu beharra dago, laguntza guztiak izango dituzu,... zure beharrak biltzen dituen estudioa egin eta nik subentzioa emango dizut, esan zion. Zufiaurrek ezer ez kentzeko eskatu zion. Izan ere, seguridade soziala, zergak,... dena ordaindu egin



Pertsonala
"Musika klasikoa eta garaikidea oso gustuko ditut. Rock estiloko taldeak ere entzuten ditut. Toy Dolls, Barricada, Baron Rojo,... asko gustatzen zaizkit".

behar da. Azkenean Zufiaurre hil egin zen.

Zer eman eta zer kendu dizu artisau modura lan egiteak?

Larremotxean ibilitakoak gara. Familiaren babesik gabe ez nukeen aurrera egingo. Egoerak eta sistemak bultzatuta, ez dut itsasontzirik portuan, zaldirik zalditegian eta ez naiz eskiatzera edo hilaibeterako oporretara joaten. Oso gustura nago, ordea, dudanearekin.

Lagun batek lana eta negozioa oso ondo ezberdintzen ditu. Nork edo nork zer moduz doakik negozioa galdetzean, hala erantzuten zuen gordo jaunak: hau ez duk negozioa, hau lana duk. Negozioa duena nahi duenean jeiki, ofizinara joan, sinatu eta arratsaldean pilota partidak ikustera,... joaten dek.

Niri lanak bizitzeko aukera eman dit. Kendu ere bizia kendu dit. Burubelarri tailerrean sartuta egoten naiz. Astelehe-

netik astelehenera egiten dut lan. Autodisziplina handia behar da.

Industriak, globalizazioak,... izango zuen eraginik zure ofizioan

Lehen ere baziren danborrak, panderoak,... egiten zituztenak baina kanpo industriak eraginda, desagertu egin dira. Industriako produktua, produktu mekanikoa da. Plastikoa erabiltzen da eta eskulana ez da lantzen,... Zorionez, geroz eta emaitza hobeak exijitzen dira grabazio estudioetan,... eta eskulana baloratu egiten da. Horrek salbatu nau. Ahalik eta kalitaterik hoberena eskaini behar dut. Musikariek kalitatea eskatu eta nik eskaini ahal diezaiekedan artean, lanean segituko dut. Bestela, etorkizun beltza dut.

Zuk egindako instrumentua jotzen duen pertsona ezagunen baten izena esango al diguzu?

Izen handikoak bezain garrrantzitsuak dira pertsona ezezagunak. Donostiako, Tolosako, Bilboko, Iruñeako,... txistulari bandak nire bezeroak dira. Merkatuan instrumentu merkeagoak izan arren, niregana jotzen dute, kalitatea eskaintzen dudalako. Panderojoleen artean, berriz, Elustondo, Tapia,... Mundu horretan dabilenak ezagutzen du nire lana. Perkusioari dagokionean, eta azken kasu xelebrea kontatzearen, atabala behar zutela eta Kalakan taldekoak nirekin jarri ziren harremanetan. Nik egindako atabalak, Madonnaren ondoan, munduari buelta eman dio.





garriagoa zait, ordea, herri bakoitzean orkestra txiki bat egotea eta herriko gazteek eta horren gazte ez direnek zer eta zein helbururekin jotzen ari diren ulertzea. Jesu-kristoren obra eskainiko duen baina bere berririk ez dugun orkestra ekarriz zer lortzen dugu? Gauza bera gertatzen da pinturarekin,... Izugarriko koadroek osatutako erakusketa antolatu dezakegu baina ulertzen ez baditugu? Zertarako nahi ditut liburutegiak, ez badugu irakurtzen? Herritarrek hezi egin behar dira. Kultur transmisioan, ordea, etenak sortzen dira. Eskuan zer dugun eta nora joan nahi dugun aztertu beharko genuke baina, jazz-ean bezala, hemen ere inprobisazioa da nagusi.

Tolosan, zer botatzen duzu faltan

Tolosan potentzial oso handiko produkzioa dago: txistulariak, dultzaineroak, pintura taldeak, musika taldeak,... Nor edo nor ari da lanean hori guztia aurrera ateratzeko. Batzuek eta besteak lotuko dituen katea falta da. Talde, eragile,... ezberdinak harremanduko dituen sarea botatzen dut faltan. Gure errua ere bada, batzuetan gure zilborrari baino begiratzen ez diogulako.

Oinarrizkoena jana eta ura izatea da. Hori izanez gero, jakinduria potentziatu behar da, aurrera doanari erraztasunak emanez. Gizar-teak hor inbertitzen badu, emaitzak ere berarentzako izango dira. Epe ertainera begirako helburuak jarri behar ditugu.

Programazio asko eta heziketa gutxi?

Heziketa falta da. Oso ongi iruditzen zait Euskadiko Orkestra egotea. Interes-

Folkloreak zer nolako garrantzia du herri identitatean?

Hizkuntzak, giza ohiturek,... egiten dute herria. Musika, artea,... dena kateatuta dago. Iruñeko, Bilboko,... edo guk jotako fandango xume bat ezberdinu egiten dugu. Bakoitzak bere musikaltasuna du. Hizkera, musika, jateko, jatzeko, festak ospatzeko modua,... identitate bati lotuak daude. Klimaren modukoa da. Euskal Herrian mikroklima ezberdin asko ditugu baina denak elkar harremanduta daude.

Euskal folklorea ze garapen egiten ari da?

Produkzio kate batean sartu beharreko zerbaiten modura ari zaigu saltzen kultura eta gu bezalako musikarientzako demandarik ez dago. Izugarriko lana egin da eta egungo trikitilarien, txistularien, perkusionisten,... maila izugarrikoa da. Hori guztia bultzatzeko, lehen aipatutako eskola nahitaezkoa da.

Oso bakarti sentitzen al zarete?

Zenbaitetan bai. Bakoitza gure munduan sartuta gaude.

Lehen, txistua jotzera joaten ginenean, egun osorako plana egiten genuen eta herriko parte sentitzen ginen. Hori bukatu da. Orain funtzio bat betetzera goaz. Ordubeteko edo bi orduko funtzioa bete eta etxera joaten gara. Gauza bera gertatzen da bertsolariekin,... Interkomunikazioa eta kultura politika falta dira.



Txarli Gesteira
Blogaria
bedaio3000.com

Gurasoei, batik bat, zuzendutako webgunea da (<http://ttiklik.com>). Umeekin lotura duten gaien biltegi bat da Itxaro Mendizabal ordiziarrek martxan jarritako webgunea. Haziera, hezkuntza eta haur-osasunaren inguruko informazio baliagarria banatzeko sortu zuen ttiklik.com webgunea.

Ttiklik!, gurasoentzat informazioa sarean

Gurasoei lagungarri egiten zaizkien hainbat gai lantzen dituzte webgunean, hala nola, amatasuna, aitatasuna, psikologia, medikuntza, elikadura... Familia eta lana uztartzeko dauden zailtasunak, txikiak kasketak, zigorrak... burura datozkigun gai eta burutazio guztien isla izan nahi du proiektu honek.

Mundu txiki, baina era berean handi honetan, 0-12 urteko umeen gurasoei/hezitzaileei zuzendutako esparru bat izan nahi du. Beraz, TTIKLiK! 0tik 12 urte bitarteko haurren guraso eta hezitzaileentzako erreferentzia leku bat bezala sortu da.

Haurdunalditik hasi eta nerabazaroraino dagoen tarteari dagozkion hainbat ikastaro, tailer, mintegi, hitzaldi eskaintzen dituzte, agenda atalean ikus daitezke.

Haziera, hezkuntza, osasuna, elikadura, terapia naturalak, jolasak, ekologia eta beste hainbeste gai lantzen

dituzte bertan. Guzti hauek guraso, hezitzaile nahiz haurrekin egiteko modukoak izaten dira.

Agendaz gain, irakurketa txoko bat ere badu webguneak. Bertan gaiarekin erlazionaturik dauden liburuak gomendatzen dituzte, atalka sailkatuta aurkitu daitezke.

Webgunean aurkituko dugun beste atal bat, "errezetak" atala da. Bertan, etxeko txikiekin egiteko moduko errezetak topatu daitezke.

Orain arte webgune bidez ezagutzak eta esperientziak elkarbanatzen urte bete pasa dutenean, hau dena toki fisiko batean proiektatzeko unea iritsi zaio proiektuari: TTIKLiK! ELKARGUNEA sortu dute, Beasaingo Zelaeta Berri Plaza 3an aurkitzen da elkargunea. Sareko espazio birtualetik espazio fisikora jauzi egin duen proiektua da TTIKLiK!

Leku fisiko alternatibo bat da; *coworking* (elkarlana) fi-

losofian oinarrituz haurrentzako haziera eta hezkuntza egoki bat lortzeko tresnak ematen saiatzen dena, lankidetza sustatuz.

Ipuin honek TtiKLiK.com zer den ederki azaltzen du:

Behin maitagarri bat agertu zitzaion etorkizunaz pentsatzen ari zen haur bati:

- Zer izan nahi duzu handia izatean, txiki? - galdetu zion, eztxiki.
- Erizaina izan nahi dut.
- Bai? Eta zerbait gehiago?
- Bai. Bai. Sukaldaria izan nahi dut, nutrizionista, elikaduran aditua!
- Zerbait gehiago?
- Bai. Jolasetan trebea izatea gustatuko litzaidake, denbora libre nola bete ederki dakiten horietakoa!
- Zerbait gehiago?
- Bai, noski! Matematiketan trebea...ipuin kontalaria... jostuna, besteei entzuten dakiena...psikologoa,medikua....

Eta bapatean!, maitagarriak umetxo horren desira guztiak batera bete zituen eta umeazer bihurtu ote zuen?"



Hiahoka; hizkuntza, ahot^{tsa} eta kantua Iruran

Hiahoka Banaiz Bagara elkarteak Iruran, herriko Udalarekin elkarlanean, martxan jarritako azken proiektua da. Hizkuntza, ahot^{tsa} eta kantua uztartuz hain zuzen ere, Euskal Herrira heldu berri direnak, euskaldunekin batera euskara ikastea dute helburu. Gidari lanetan Petra Elser alemaniarra dihardu, Julian Cobzaru akordeoilari errumaniarraren laguntzarekin.



Iragan ekainaren 11n hasita, asteartero biltzen dira Irurako liburutegizaharreko gurasoen gelan, elizaren atzealdean, kantatzeko, ondo pasatzeko, jendea ezagutzeko eta euskara ikasi, praktikatu eta partekatzeko asmoz. Astean ordubeteko iraupeneko saio bakarra egiten dute, asteartero, arratsaldeko 18.00-19.00 bitartean. Ikastaroan parte hartzea irekia eta doakoa da, bilerak ekaina eta uztaillean ospatuko dira; abuztuan atsedena hartuz, berriro irailean ikasturte berriari heltzeko intentzioarekin.

Hiahokak hizkuntza, ahot^{tsa} eta kantua oinarri hartuta, kantua, musika eta gorputz ariketa ezberdinen inguruan tarte atsegin eta ludikoa pasatzeko aukera eskaintzen die parte hartzaileei. Kontua ez da kantuan abeslari bikaina izatea, euskal kantu tradizionalak zein berriei gozatzeko gogoia izatea baizik.

Petra Elser euskara dinamizatzaileak proiektua sortzearen ideiarekin berri eman du: "Banaiz Bagara elkartearen kantuak hasieratik erabili ditugu, ikasleek kantuak ezagutzeko eta euskaraz ahoskatzen auzatzeko; hasieran bi kantu irakasleekin aritu ginen eta gerora pentsatu genuen gure esperientzia proiektu batean biltzea". Horrela sortu zen Hiahoka proiektua. Banaiz

Bagara elkarteak orduan Kantuzaleen Elkartearen eta Mintzola Fundazioaren babesa izan zuen.

Iruran hasi berri den proiektu honek hizkuntzaren eza-gutza naturaltasunean du oinarri. Horrela laburbiltzen du Petra Elserrek: "Kantatzaren duzun unean euskara praktikatzaren duzu, hitz batzuk eza-gutzen dituzu eta modu naturalean ahoskatzen ikasten duzu". Izan ere, Petraren esanetan hizkuntza berri bat ikasteko garaian, ezinbestekoa da norbera bere ahotsarekin eroso sentitzea: "bakoitzak bere ahot^{tsa} aurkitzea eta horren bitartez segurtasuna lantzea da ideia, ahotsarekin seguruago sentitu eta hitz egiteko ausardia izatea, alegia".

Proiektu honen garapenean Petra Elser ez dago bakarrik, Julian Cobzaru akordeoilari errumaniarra du bidelagun. Badira hiru urte Petra eta Julian elkar ezagutu zutela euskara ikasteko ikastaro batean. Julian Cobzaru akordeoilari trebea da eta Petra ezagutzearekin batera, euskal kantuetan barneratzen hasi zen. Kantu tradizionalak (Oskorriren "Aita semeak", Anje Duhalderen "Eperra", Benito Lertxundiren "Erribera", Itoizen "Lau Teilatu") zein berriagoak ere, (Ken 7ren "Ilargia", Pirritx eta Porrotxen "Maite zaitut") dira errumaniar akordeoi ho-



netan entzuten diren piezak.

Julian Cobzaru duela hamar markada bat bizi da Euskal Herrian eta egun argi dauka bertan bizi eta bertan euskaraz bizi nahi duela, gainera. Bera ezagutu eta aurkezpenean adierazten duen lehen esaldia baita, baita soinean idatzita eraman ere. Izan ere, Irurako saioan Julian Cobzaru "Euskaraz bizi nahi dut" kamisetan jantzita azaldu da. Euskal musikak eta errumaniarrak antzekotasunik badutela dio

musikariak akordeoia ondoan duela.

Integraziorako bidea

Idoia Olanok, Irurako Udalako euskara teknikariak azaldu bezala, Irurako Udalak izan da, kasu honetan, Banaiz Bagara elkartearengana jo duena egitasmo eske: "berez iazko ikasturterako programatuta zegoen baina atzeratu egin zaigu". Proiektuak Iruran kezka bati erantzuna eman nahi dio: "euskara ikasteko talderik,

aukerarik Iruran sortzen ez zenez, beste formatu batera jo nahi izan dugu; beste ikuspuntu eta filosofia batetik, zerbait ludiko, erraza eta erakargarria eskainiz".

Honekin guztiarekin batera, Hiahoka egitasmoak beste helburu batzuk ere betetzeko xedea du. Idoia Olanok horien berri eman du: "euskara ikasteko eta erabiltzeko gune bat sortu nahi genuen; era berean, jendea elkar ezagutzeko aukera ematen zuena. Euskara maila ezberdina duen jendea elkar ezagutzeko, etorri berriak eta bertakoak elkar ezagutzeko eta integratzeko baliagarria dena".

Dagoeneko ikastaroaren berri eman da; komunikabideen bitartez zabaltzen da, kartelak jarri dira, gonbidapen zuzenak banatu dira... Baina oraindik, Idoia Olanoren esanetan, garrantzitsua falta da: ahoz-ahokoa. Taldean parte hartutakoek esperientzia herritarren artean partekatu eta jende berria taldera animatzea.

Saldias Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**
N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoko

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informazioa Zerbitzua

Ordenagailu eta Internet
Erreseta eta jarduera teknikoak
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

www.galtzaundi.com

**errotatxo
okindegia**

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

irakurri entzun lkusi

Zinegotzia
Fermin Etxegaien

Fikzio hutsa izan arren, Zinegotziak neurria hartu nahi dio errealitateari, ahalik eta gehien gerturatzuz aktualitate deitzen dugun horretara. Egun bakarrean gertatzen da kontakizuna, drama klasikoetan bezala, hiru ataletan banatua.

Saurius
Humus

Taldearen bosgarren diskoa. Taldearen erritmoak sinpleagoak dira oraingoan baina sekula baino indartsuagoak: gitarraren melodiak, orain arte ezezaguna eurentzat, protagonismo handia irabazi du. Nataliaren ahotsari eta garrari protagonismoa kendu gabe.

Elkarte
Kote Camacho

Film laburra. Aspaldiko lau lagun elkarte biltzen dira afaltzeko. Haietako bat, zeini besteek arrastoa aspaldi galdu zioten, oso egoera ekonomiko larrian bizi da. Besteen jarrera orokorra, laguntza eskaintzearena izango da, hasiera batean behintzat.

Ekainaren 21etik uztailaren 12ra bitarteko hitzorduak

Kontzertua

Sortuko dira besteak. Ekainak 21, ostirala. Unai Elorrieta, Mikel Urdangarin, Olatz Prat, Arantza Irazusta, Pier Paul Berzais, Amets Arzallus eta Alex Sardui. Tolosa, Leidor. 20.30. KMK13 ekimena
Solstizio kontzertua. Et Incarnatus Orkestra. Ekainak 22, larunbata. Iraolako zuloa, Urkizu. 12.30
Tolosako Musika Banda. Ekainak 24, astelehena. Tolosa
Tolosandblues. Ekainak 28 eta 29. Tolosa

Odol emaileak

Ekainak 21, ostirala. Ekainak 21, ostirala. Alegia, Sendagi-learn etxea. 19.00. Gipuzkoa-ko Odol Emaileak antolatuta

Jubilatuak

Jubilatuen urteko batzarra. Ekainak 22, larunbata. Alegia, Jubilatuen Egoitza. 11.30
Jubilatuen eguna. Ekainak 30, igandea. Meza nagusia eta bazkaria. Alegia, 11.00

Jaiak

San Joan bezpera, Ibarra.

Ekainak 23, igandea. Hauspoa Elkarreak antolatuta
San Pedro jaiak, Urkizu. Ekainak 28-30

Antzerkia

Leo Harlem. Ekainak 28, ostirala. ¿Qué hay de nuevo? Tolosa, Leidor. 20.30

15. Amarozko Antzerki Astea

Ekainak 24-30. Tolosa
Klowntainer. Pailaztana klown taldea. Uztailak 1, astelehena. Helduentzat. 22.00
Txapi-Txapo. Ipotx Zirkolosa. Uztailak 2, asteartea. Umeentzat. 18.00

Historias de Pitu-Titu. Carlos Perez Aradros. Uztailak 2, asteartea. Helduentzat. 22.00
Doble cita. Decopivolta. Uztailak 3, asteazkena. Familia-rra. 18.00

Maitetasuna, Bazen behin lur izeneko planeta bat eta Yo-yo bakarsaioa. Tic-Tac eta Juanmari. Uztailak 3, asteazkena. Helduentzat. 22.00

Ametsik egiten ez zekien iraxoa. Bazen behin klown. Uz-

tailak 4, osteguna. Umeentzat. 18.00

May Gorostiaga... Presente!!! Intujai teatro. Uztailak 4, osteguna. Helduentzat. 22.00
La risa es bella. Cia. Circortito. Uztailak 5, ostirala. Familia-rra. 18.30

Mr. Frack. Xabi Larrea. Uztailak 6, larunbata. Familia-rra. 17.00

Kirola

III. Maskarreras auto-topaketa. Ekainak 29, larunbata. Ibarra
XI. Langostino Moto Festa. Uztailak 6-7. Langostino Moto Kek antolatuta. Ibarra



TOLOSA KANTARI


Tolosa Kantari

Kantu bazkaria. V. urteurrena. Ekainak 29, larunbata. Bazkaria norberak eraman behar du eta Tolosa Kantariko antolatzaileek mahaia eta edariak prestatuko dituzte. Edariak eta bestelako gastuak ordaintzeko, 7 euroan jarri dira salgai bazkarirako txartelak Tolosako

Xirimiri kafetegian eta Babes tabernan. Haur eta gaztetxoek ez dute ordaindu behar. Tolosa, San Jose ikastetxea. 14.30

Jardunaldiak

Turismo Aktibo Jasangarriari buruzko topaketak. Ekainak 28-30. Larunbatean gazteei zuzendutako ibilbideak, eskalada txapelketak eta kontzertua eta igandean familiei zuzendutako festa: ibilbidea, turismo aktiboko ekintzak, produktu jasangarrien azoka, etab. Larraitx eta Alkiza



Uda Gaztea

Surf ikastaroa. Uztailak 1-5. Tolosako Gazte Topaguneak antolatuta. Informazioa eta izena ematea kultur etxean eta udaletxean. 30 euro. Donostiako Zurriola hondartzan. Goizez

HOBETUZ-ek diruzlagundua

Elikagaien manipulatzaille txartela
7 ordu.

2013ko ekainaren 26an eta 27an.
Asteazkena eta osteguna: 15.30-19.00.
Egiaztagiria ofiziala lortzen da, 5 urtetarako.

Prestakuntzan badakizu nora jo?
2 ordu.

2013ko ekainaren 28an.
Ostirala: 10.00-12.00.
Orientazio Zerbitzua uztailaren 15a bitartean zabalik izango duzu:
Heziketa Zikloak, Profesionaltasun Ziurtagiriak, Etengabeko prestakuntza, Unibertsitate Ikasketak, Lan esperientziaren egiaztatzea... Zatoz Ikastn-era.

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLHBko bulegora.
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 21 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Asteazkena, 26 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Astelehena, 1 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
Larunbata, 22 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa	Osteguna, 27 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Asteartea, 2 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra
Igandea, 23 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Ostirala, 28 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Asteazkena, 3 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa
Astelehena, 24 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Larunbata, 29 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Osteguna, 4 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
Asteartea, 25 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Igandea, 30 Echeveste J.M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Ostirala, 5 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	943 006 900
Osasun zentroa	943 672 637
Altzo	943 675 799
Medikua	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	
Medikua	943 672 932
Baliarrain	943 675 858
Medikua	943 650 016
	639 352 156
Berastegi-Elduain	943 670 325
Medikua	112
Bidegoian	943 672 536
Medikua	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 651 425
Osasun etxea	943 673 022
Ikaztegieta	943 675 320
Medikua	
Irura	943 682 077
Osasun zentroa	943 655 595
Tolosa	
Anbulatorioa, larriald.	943 682 228
San Esteban, hitzordua	
Gernikako Arbola, hitzor	
Amarozko dispensarioa	
Asunzion klinika	
(larrialdiak)	
San Kosme San Damian	
geriatrikoa	
Udaltzaingoa	
Ur eta Argia (Tolargi)	
Ur zerbitzuak (aberiak)	
lurreamendi egoitza	
Larrialdiak, Suhiltzaileak	
DYA	
Gurutze Gorria	
Ertzantza	
Tolosa Gasa	
Lizartza	
Medikua	
Orendain	
Medikua	
Orexa	
Medikua	

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



**SANTA
LUZIA
GARAJEA**

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behe
20400 Tolosa

19-90



KONBINA-TU

Aukeratu 2 plater eta edaria 12,90 eurotan
(astelehenetik-ostegunera)



FAST GOOD FOOD

Betiko kutixiak gure karta berrian

